

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

2989

EBAZPENA, 2022ko ekainaren 9koa, Justizia Administrazioako zuzendariarena, zeinaren bidez eskumen batzuen erabilera eskuordetzen baitzaie espetxeetako zuzendariei, euskal espetxeetako langile publikoen kudeaketaren arloko gai batzuen gainean.

Espetxeei buruzko irailaren 26ko 1/1979 Lege Organiko Orokorrek ezarrita du, 79. artikuluan, autonomia-erkidegoei dagokiela lege honetan arautzen diren erakundeak zuzentzea, antolatzea eta ikuskatzea, baldin eta beren estatutuetan erkidegoek beren gain hartu badituzte espetxe-lege-riaren betearazpena eta horren ondoriozko espetxe-jardueraren kudeaketa.

Lehendakariaren 2020ko irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak –Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak– 13.1.f) artikulua bidez esleitzen dio Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Sailari espetxe-establezimenduei buruzko eskumena, eta, bereziki, «espetxe-establezimenduak eta, bereziki, horien antolaera, funtzionamendua eta espetxe-legeak betetzea, lege horiek Espetxe Administrazioako organo zentrali ematen dizkieten ahalmenen egikaritzea bere gain hartuz».

Eta ekainaren 29ko 474/2021 Errege Dekretuak –Espetxe-arloko estatu-legeak betearazteko esparruan Estatuko Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen dizkion eginkizun eta zerbitzuei buruzkoak–, ezarrita du, E) letran, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkiola eskualdatutako zerbitzuei dagozkien ondasunak, eskubideak eta betebeharrak, eta F) letran, Euskal Autonomia Erkidegoaren mendeko izatera igaroko direla eskualdatzen diren funtzio eta zerbitzuei atxikita dauden langile eta lanpostu hutsak, Euskadiko Autonomia Estatutuan eta kasu bakoitzean aplikagarri diren gainerako arauak legez aurreikusitako baldintzetan, eta bakoitzaren langile-espeditentean zehazten diren inguruabar beretan.

Bestalde, urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak –martxoaren 29ko 40/2022 Dekretuak aldatu zuenez gero–, 12. artikuluan ezarrita du Justizia Administrazioako Zuzendaritzari dago kiola honako eginkizun hauek betetzea: Espetxeetako giza baliabideak planifikatu eta kudeatzea; langile horien premiak aztertzea; plantilla eta lanpostu-zerrendak prestatzeko proposamenak egitea; prestakuntza- eta hobekuntza-planak egitea, bai eta gizarte-prebentzioko eta lan-arriskuen prebentzioko planak ere; arrisku horietarako berezko prebentzio-zerbitzua kudeatzea; sindikatuekiko harremanak izatea, indarrean dagoen negoziazio-egiturak adierazten duen eremuan, eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 10 artikulua eta indarrean dauden gainerako araudiek langile horiei buruz sailari esleitzen dizkieten eskumenak baliatzea (12.1.k artikulua).

Aurreko guztia gorabehera, eta bizkortasun- nahiz eraginkortasun-helburuak lortzearren, Justizia Administrazioako Zuzendaritzak komenigarritzat jotzen du, une honetan, gauzatu dadila ebazpen honen xedapenetan zerrendatzen diren eginkizunen eskuordetzea.

Horregatik guztiagatik, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 9. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Honako eginkizun batzuk eskuordetzea espetxeetako zuzendariei, nori bere ardurapeko espetxearen eremuan, 474/2021 Errege Dekretuaren bidez eskualdatutako funtzio eta zerbitzuei atxikitako langile eta lanpostu hutsei dagokienez (ekainaren 29ko 474/2021 Errege Dekretua, ekainaren 29koa, Espetxe-arloko estatu-legeak betearazteko esparruan Estatuko Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen dizkion eginkizun eta zerbitzuei buruzkoa). Honako hauek, hain zuzen ere:

a) Urteko oporrak eta jaiegunak konpentsatzeko egunak ematea eta banatzea.

b) Aplikatzekoa den araudian ezarritako denborak eta arrazoiak direla eta ordaindutako baime-nak ematea.

Bigarrena.– Eskuordetze honek ez ditu eragozten Justizia Administrazioko zuzendariak, organo eskuduna denez gero, gaiari buruz ezartzen dituen jarraibide eta irizpideak, eta, hala, irizpide horiei zorrotz jarraitu beharko diete eskuordetze bidez ematen diren ebazpenek. Gainera, organo eskuordetza-emaleak agindua eman ahal izango die eskuordetza ezarrita duten organoei, aldizka bidal dezaten eskuordetutako eskumenak baliatzean ematen diren egintzen zerrenda bat.

Hirugarrena.– Agindu honetan aipatzen den eskumen-eskuordetzak zedarri ditu urriaren 1eko 40/2015 Legearen 9.2 artikuluan zehazturiko mugak. Hala, eskuordetza honen bidez ematen diren ebazpenek espresuki adierazi beharko dute inguruabar hori, eta organo eskuordetza-emaleak emandakotzat joko dira.

Laugarrena.– Justizia Administrazioko zuzendariak noiznahi errebokatu ahal izango du ebazpen honetan aipatzen den eskumen-eskuordetza. Errebokatzeak sinatu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondoreak.

Bosgarrena.– Justizia Administrazioko zuzendariak berengana bildu ahal izango ditu ebazpen honek aipatutako eskuordetzan jasotzen den edozein gairen ardura hartzea eta ebazpena ematea, baina horrek ez du eragotziko eskuordetzak bere horretan jarraitzea, betiere espresuki errebokatzeko edo aldatzeko ez den bitartean.

Seigarrena.– Ebazpen honek sinatu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondoreak.

Zazpigarrena.– Espetxeetako zuzendaritzek ebazpen honen berri emango diete beren jardun-eremuko langileei, zentroaren ezaugarrietarako egokien jotzen dituzten publizitate-bitartekoen bidez.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da, Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako sailburuordeari zuzenduta, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 9a.

Justizia Administrazioko zuzendaria,
JON ARTURO URIARTE UNZALU.